

INGURUMEN HOBEKUNTZARAKO 2020KO PLANA GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA, DONOSTIA

Mercedes Urgoiti Agirre, ingurumen kudeatzailea

Donostia, 2020ko martxoaren 4a



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

GIPUZKOAKO
INGENIARITZA
ESKOLA
ESCUELA
DE INGENIERÍA
DE GIPUZKOA

AURKIBIDEA

- 1. HOBEKUNTZA TALDEAK AZTERTUTAKO NEURRIAK**
- 2. BIDERAGARRITASUNAREN INGURUKO IRITZIAK**
- 3. HAUTATUTAKO NEURRIAK**
- 4. INGURUMEN HOBEKUNTZARAKO 2020KO PLANA**

1. HOBEKUNTZA TALDEAK AZTERTUTAKO NEURRIAK

1.1. IGOGAILUAREN ERABILERA MURRIZTEA (BERRAKTIBATU+)

2019/2020 ikasturtean, UPV/EHUko Iraunkortasuneko Zuzendaritzak aukera eskaini zion Eskolari Ekintza Globalerako Planaren (GAP) sareko BerrAktibatu+ Unibertsitateak nazioarteko ekimenean parte hartzeko. Ekimen hori hainbat erakundek sustatzen dute, besteak beste Eusko Jaurlaritzak, eta Nazio Batuen ingurumen inpaktua murrizteko programak babesten du.

Ingurumen hobekuntzarako taldeak behin baino gehiagotan planteatu du eskolan igogailuaren erabilera murrizteko beharra. Hala ere, orain arte ez dira gauzatu helburu hori lortzeko planteatutako ekintzak. BerrAktibatu+ programak ikasle ugari parte hartzeko aukera ematen zuen. Aintzat hartuta ikasleek erabiltzen dutela gehienbat igogailua, Eskolako BerrAktibatu+ taldea (ingurumen hobekuntzarako taldeak eta 10 ikasle osatzen dute) igogailuaren erabilera murrizteko helburua planteatu zuen. Helburu hori lortzeko, kontzientziazio-kanpaina bat egitea proposatu da.

Helburu gisa proposatzen da Eskolako ikasleen eta langileen artean igogailuaren erabilera murriztea.

1.2 LED ARGIAK JARTZEA ESKOLAKO ATONDOAN ETA ERAKUSKETA-EREMUAN (BEHEKO SOLAIRUA).

Gaur egun, atondoan eta erakusketa-eremuan instalatutako argiak kontsumo txikikoak dira. Eremu horretan, argia piztuta egoten da astelehenetik ostiralera, 07:00etatik 21:00etara (14 ordu/egun). Kontsumo txikiko argi horien ordeztu LED argiak jarri diren lekuetan lortutako emaitzak positiboak izan direnez, ingurumen hobekuntzarako taldeak proposatu zuen LED argiak jartzea eremu horretan.

Helburu gisa proposatzen da led argiak jartzea Eskolako atondoan eta erakusketa-eremuan (beheko solairua).

1.3 LED ARGIAK JARTZEA ESKOLAKO LEHENENGO SOLAIRUKO KORRIDORE NAGUSIAN

Gaur egun, lehenengo solairuko korridorean (laborategietako korridorea izan ezik) instalatutako argiak kontsumo txikikoak dira. Eremu horretan, argia piztuta egoten da astelehenetik ostiralera, 07:00etatik 21:00etara (14 ordu/egun) Kontsumo txikiko argi horien ordeztu LED argiak jarri diren

leketan lortutako emaitzak positiboak izan direnez, ingurumen hobekuntzarako taldeak proposatu zuen argiak aldatzea eremu horretan.

Helburu gisa proposatzen da LED argiak jartzea Eskolako lehen solairuko korridorean (laborategietako korridorea izan ezik).

2. BIDERAGARRITASUNAREN INGURUKO IRITZIAK

2.1 IGOGAILUAREN ERABILERA MURRIZTEA (BERRAKTIBATU+)

Helburua: Eskolan igogailuen erabilera murriztea.

Ekimen horrek ez du kostu ekonomiko handirik ekarriko, kontzientziazio-kanpainarako poster batzuen inprimatze-gastuaz haratago. Hala ere, helburu hori lortzearekin batera, ingurumenari mesede egingo zaio argindar gutxiago kontsumitzearen eraginez. Era berean, aurrezte ekonomikoa ekarriko du argindarraren kontsumoaren murrizketari esker, baita mantentze-lan zuzentzailearen murrizketari esker ere.

2.2 LED ARGIAK JARTZEA ESKOLAKO ATONDOAN ETA ERAKUSKETA-EREMUAN (BEHEKO SOLAIRUA).

Helburua: LED argiak jartzea Eskolako atondoan eta erakusketa-eremuan (beheko solairua).

2019aren amaiera aldera erosi zen jarduketa hau gauzatzeko materiala. LED argi bakoitzak 9,66 €-ko kostua du. Guztira 66 argi aldatu behar dira, hortaz, materialaren kostu osoa 637,56 €-koa izan da. Argiak instalatzeak ez du kostu ekonomikorik izango, atezaintzako langileek instalatuko baitituzte.

Bonbilla	Potentzia (watt)	Bonbilen kopurua	Kontsumoa: kwh/bonbilla	Kontsumoa: ordu/ egun (07:00-21:00)	Kontsumoa: kwh/egun	Kontsumoa kwh/urte*
Hodi fluoreszentea	58W	66	3,8 Kwh	14	53,2 Kwh	13.885,20 Kwh
LED hodia	20W	66	1,3 Kwh	14	18,2 Kwh	4.752,20 Kwh

*Asteburuak ez dira aintzat hartu (365-104=261 egun)

Aintzat hartuta taulako datuak, eremu horretako urteko kontsumo balioetsiaren murrizketa % 66koa izango da led argiak instalatu ostean.

Neurri honekin, ingurumenari mesede egingo zaio argindar gutxiago kontsumitzearen eraginez, eta dirua ere aurreztuko da.

2.3 LED ARGIAK JARTZEA ESKOLAKO LEHENENGO SOLAIRUKO KORRIDORE NAGUSIAN (LABORATEGIETAKO KORRIDOREA IZAN EZIK).

Helburua: LED argiak jartzea Eskolako lehenengo solairuko korridore nagusian (laborategietako korridorea izan ezik).

LED argiak atezaintzako langileek instalatuko dituztenez, kostua materialaren erosketari baino ez dagokio. LED argi bakoitzak 9,66 €-ko kostua du. Guztira 72 argi aldatu behar dira, hortaz, materialaren kostu osoa 695,52 €-koa izango da.

Bombilla	Potencia (wattios)	Nº bombillas	Consumo kwh/bombillas	Horas consumo/día (7:00-21:00)	Consumo kwh/día	Consumo kwh/año*
Tubo fluorescente	58W	72	4,17 Kwh	14	58,4 Kwh	15.242,40 Kwh
Tubo LED	20W	72	1,44 Kwh	14	20,16 Kwh	5.261,76 Kwh

*Fin de semanas descontado (365-104=261 días)

Aintzat hartuta taulako datuak, eremu horretako urteko kontsumo balioetsiaren murrizketa izango da led argiak instalatu ostean.

Neurri honekin, ingurumenari mesede egingo zaio argindar gutxiago kontsumitzearen eraginez, eta dirua ere aurreztuko da.

3. HAUTATUTAKO NEURRIAK

Hauek dira 2020rako hautatu diren hobekuntza helburuak:

1. Iggogailuaren erabilera murriztea (BerrAktibatu+).
2. LED argiak jartzea Eskolako atondoan eta erakusketa-eremuan (beheko solairua).
3. LED argiak jartzea Eskolako lehenengo solairuko korridore nagusian (laborategietako korridorea izan ezik)

4. INGURUMEN HOBEKUNTZARAKO 2020KO PLANA

Jarraian, hobekuntza planeko ekintzak eta horiek betetzeko epeak zehazten dira.

GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLAREN INGURUMEN HOBEKUNTZARAKO PLANA 2020. URTEA

Hobekuntzarako helburuak	Ekintzak	Arduraduna	Gauzatzeko epea	Fecha Jarraipen-data	Jarraipen adierazlea
Igogailuaren erabilera murriztea (BerrAktibatu+).	<ul style="list-style-type: none"> - Datuak biltzea - Kontzientiazio-kanpaina - Kanpainaren osteko datuak biltzea - Amaierako txostena 	GIEko BerrAktibatu+taldea	Urritik apirilera		<ul style="list-style-type: none"> - Bilkuretako aktak - Txostenak
LED argiak jartzea Eskolako atondoan eta erakusketa-eremuan (beheko solairua).	<ul style="list-style-type: none"> - Eskolako atezaintzako langileek instalatzea 	Administrazioko burua	Martxoa		<ul style="list-style-type: none"> - Faktura
LED argiak jartzea Eskolako lehenengo solairuko korridoreetan.	<ul style="list-style-type: none"> - Led argien eta materialaren aurrekontua eskatzea 	Administrazioko burua	Urtarrila	Urtarrila	<ul style="list-style-type: none"> - Aurrekontua
	<ul style="list-style-type: none"> - Dirulaguntza eskatzea Campuseko Errektoreordetzari, ikastegiaren premien memoriaren bidez 	Administrazioko burua	Otsaila	Otsaila	<ul style="list-style-type: none"> - 2019ko premien memoria
	<ul style="list-style-type: none"> - Hodi fluoreszenteak ledekin aldatzea 	Administrazioko burua	Apiril-maiatza	Maiatza	<ul style="list-style-type: none"> - Kontsumo emaitzen txostena
	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduerari buruzko txostena egitea 	Cristina Peña	Apirila	Apirila	<ul style="list-style-type: none"> - Faktura

Ingurumen Hobekuntzarako Plan hau **Zuzendaritzak 2020ko martxoaren 4an egindako bileran onartu da**, eta Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako Zuzendaritzak hitzematen du beharrezko baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta bestelakoak emango dituela plana gauzatzeko. Horretarako, araupetzen duten barne prozedurei jarraikiz jardungo du.

Sin.: J. Xabier Ostolaza Zamora
 Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolako zuzendaria